



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa oharra

Batzar Nagusiek onartu egin dabe udalen zorpetze-mugen aldaketea

Bilbo, 2012ko bagilaren 21a.

Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Arau Proiektu bi onartu ditue, Gernikan, une honetan oraindik amaitu barik dagoan Osoko Batzarrean, bata udalei urtekitaldi honetarako daukiezan zorpetze-mugak aldatzeari buruzkoa eta, bestea, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoa aldatzeari eta Errepideen Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko finantziazio erispideei buruzkoa.

Bizkaikao udalen zorpetze-mugak aldatzeko Foru Aldundiak egindako proposamena Euzko Abertzaleak Taldeak, Socialistas Vascos Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak aldeztu dabe, euren ustez beharrezkoa dalako hirugarren batzuketan daukiezan zorrei —holako zorrak ugaritu egin dira krisi ekonomikoaren ondorioz— aurre egin ahal izateko udalek baliabideren bat izatea. Bildu Taldea abstenitu egin da, aldaketa hori Madrilen egindakoaren “kopia hutsa” dala uste dabelako eta neurria “ez dalako behar bestekoa”, Joseba Gezuraga batzarkideak esan dauenez.

Bere aldetik, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoa aldatzeari eta Errepideen Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko finantziazio erispideei buruzko 3/2010 Foru Arauaren aldaketea Euzko Abertzaleak Talderen eta Bizkaiko Talde Popularraren botoakaz (29) onartu da, eta Socialistas Vascos Taldeak eta Bildu Taldeak aurka bozkatu dabe (16).

Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, Itziar Garamendik, esan dau aldaketea krisialdi ekonomikoaren ondoriozkoa dala, baliabide publikoak murrizteak eskatzen dauelako Bizkairako errepide azpiegitura “garrantzitsuak” egiterako orduan “zuhertasun eta malgutasun gehiagoz jokatzea”. Diputatu andreak esandakoagaz bat etorri da Jesus Isasi (Talde Popularra), eta esan dau bere Taldeak neurri hori aldeztu dauela “erantzukizunagaitik” eta azpiegitura horreek “ahal bait arinen izatea” gura dabelako. Bildu Taldea aurka azaldu da, Asier Sanz batzarkideak esandakoaren arabera, aldaketea “inprobisazioaren” ondorezkoa dalako. Era berean, Socialistas Vascos Taldearen izenean berba egin dauen Joaquín Colmenero batzarkideak esan dau bere Taldearen ustez Lurralde Plan Sektorialeko azpiegitura guztiak egin leitekezala egin, krisia gora-behera, eta salatu dau lortutako “adostasuna apurtu” egin dauela Aldundiak.

Foru Arau Proiektu biok eztabaidatu aurretik, hiru Itaun gauzatu dira Osoko Batzarrean. Lehenengoan, Kulturako Foru Diputatuak, Josune Ariztondo andreak, Bizkaiko Museoak kudeatzen dituan BizkaiKOA sortu zanetik 16 hila bete igarotakoan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

egindakoaren balantzea azaldu dau. Ariztondok hamar bat “adibide” aitatu ditu ordutik hona egindako gauzen inguruan, eta esan dau erakunde horren kudeaketearen onurak “ez dirala ikusiko denbora gehiago igaro arte”. Talde Popularreko Arturo Aldecoa batzarkideak, ekimenaren aurkezleak, esan dau Batzarkide-Taldeek ordezkartza izan beharko leukiela BizkaiKOaren Administrazio Kontseiluan eta Aholku Batzordean, egiten daudenaren informazio gehiago eukiteko.

Talde berberak beste Itau bat be aurkeztuta euki dau, eta horren harira Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, Itziar Garamendik, bizikletetarako aparkalekuak Aldundiaren egoitzetan eta Bizkaibusen autobusetan egokitzeari buruzko argibideak emon ditu. Garamendik esan dau aukera hori badagoala egon linearen baten, esaterako Bilbo eta aireportua lotzen dauenean, baina autobus gehiagotan hori egin ahal izateak topo egiten dauela bidaiarien garraiorako araubideagaz eta bidaiariak eroan leikezan beste gauza batzuk, esaterako haurrentzako aulkitxoak, autobustetara sartu ahal izateagaz.

Beste alde batetik, Bildu Taldeak azalpenak eskatu deusaz Aldundiari “hondakinak kudeatzeko sistemak etorkizunean izan beharreko norabideari buruz”. Talde horren eretziz, Europako Batzordeak hondakinak kudeatzeko modu iraunkorragoak sustatzea gomendatzen dau, albo batera itxita errausketagaitik edo isurketengaitik ordaintzearen aldeko hautua, atez ateko bilketaren alde eginik, Gipuzkoako zenbait udalerritan egiten ari dan erara.

Ingurumeneko Foru Diputatuak, Iosu Madariagak, esan dau “ez dala egia” inondik inora Europak energia birbaliozko errausketea “gaitzesten” dauenik, eta Aldundiaren planean “atez ateko” bilketea be agertzen dala. Diputatuak esan dau be ez datorrela bat Bildugaz, aukera hori modu orokorrean hedatu behar dala dinoanean.

Beste alde batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Araua aldatzeko Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako ekimena ez dabe onartu Batzar Nagusiek. Talde horrek gura eban “%50eko salbuespena izan dagiela kostu bidez eskuratutako hiri higiezinak eskualdatzetik agertutako ondare irabaziek”. Euzko Abertzaleak, Socialistas Vascos eta Bildu Taldeek aurka bozkatu dabe.

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak enpresa leihatilaren zenbait gora-beherari buruz aurkeztutako mozinoa Batzar Nagusien gehiengoak aldeztu dau, Euzko Abertzaleak Taldearen aurkako botoagaz. Gainontzeko Taldeek enpresen sorrerea “errazteko” proposamen horren alde bozkatu dabe. Talde Popularrak beste mozino bat eukan aurkeztuta BUHKPIren errebisinoaren arabera Zabalgarbiko planteak erabilten ez dauen (%10) gaitasunaren inguruko aurreikuspeni buruz, baina mozino horrek ez dau aurrera egiteko behar besteko botorik lortu. Euzko Abertzaleak Taldeak aurka bozkatu dau, eta Socialistas Vascos eta Bildu Taldeek abstenitu egin dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Hirugarren mozino bat be egon da, Errigoitiko Udalak sustatu nahi dauen biomasa zentrala ez egiteko Bildu Taldeak aurkeztutakoa, eta mozino hori be ez da onartu. Euzko Abertzaleak eta Socialistas Vascos Taldeek batu egin dabez daukezan 31 botoak mozinoaren edukinaren aurka bozkatzeko. Bildu Taldearen eta Bizkaiko Talde Popularraren 19 botoak ez dira nahiko izan mozino horrek aurrera egiteko.

Aurreko Osoko Batzarretan gertatu izan dan moduan, oraingo honetan be Arauz Besteko Proposamenak azkenean eztabaidatu dira. Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko baldintzen aldatetari buruz Bildu Taldeak aurkeztutakoa ez da onartu. Enparauko Talde batek be ez dau egin horren alde, hau da, Eusko Jaurlaritzaren erispide barriaren arabera —gitxienez 3 urtean erroldatuta egotearena— prestazino hori barik inor geratu ez daiten Aldundiari laguntza barria sortzea eskatzen eutsan proposamena ez da onartu.

Politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalidadearen ebaluazinoari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena onartu egin da Euzko Abertzaleak Taldeak aurkeztutako zuzenketa-eskeak sartu eta gero, Euzko Abertzaleak Taldeak uste ebelako foru arauz egitea “ez zala egokia zurrunegia izateagaitik”. Talde biok eta Socialistas Vascos Taldeak alde bozkatu dabe, baina Bilduk aurka bozkatu dau. Azkenik, gai berari buruz Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena ez da onartu, Socialistas Vascos Taldearen aldeko botoa izan arren, Popularraren abstentzinoa eta Euzko Abertzaleak Taldearen aurkako botoa izan dau eta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

Las Juntas Generales aprueban modificar la limitación de endeudamiento de los ayuntamientos

Bilbao, a 21 de junio de 2012.

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en pleno dos Proyectos de Norma Foral. El primero modifica para este ejercicio las limitaciones de endeudamiento de los Ayuntamientos. Y el segundo cambia el Régimen Jurídico de los peajes de las carreteras de Bizkaia, así como los criterios de financiación para la modificación del Plan Territorial Sectorial de Carreteras.

A propuesta de la Diputación, el cambio normativo para modificar los límites de endeudamiento de los ayuntamientos vizcaínos ha recibido el apoyo de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno, por entender estos grupos que era necesario dotar a las entidades locales de una herramienta para hacer frente a las obligaciones de pago con proveedores. El Grupo Bildu se ha abstenido por considerar que este cambio es una “copia” de lo que se ha hecho en el Estado y por ser una medida “parcial e insuficiente”, según Joseba Gezuraga.

Por su parte, la modificación de la Norma 3/2010 que establece un nuevo régimen jurídico para los peajes de Bizkaia y cambios en los criterios de financiación en las carreteras vizcaínas, ha sido aprobada con el apoyo del Grupo Nacionalistas Vascos y del Grupo Popular Vizcaíno, y el rechazo del Grupo Socialistas Vascos y Bildu; al final, 29 votos a favor, frente a 16 en contra.

La Diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha defendido este cambio porque la situación actual de crisis económica y la merma de los recursos públicos “exige mayor claridad y flexibilidad” para ejecutar infraestructuras viarias “importantes” para Bizkaia, algo en lo que ha coincidido Jesús Isasi que ha defendido el apoyo de su grupo (Grupo Popular) por “responsabilidad” y por desear que se ejecuten las infraestructuras “cuanto antes”. En el otro extremo, se ha situado Bildu que entiende que este cambio obedece a una “improvisación”, según Asier Sanz. Asimismo, el representante del Grupo Socialistas Vascos, Joaquín Colmenero, ha mantenido que su grupo cree que se pueden ejecutar todas las infraestructuras aprobadas en el PTS pese a la crisis, y ha denunciado a la Diputación por “romper el consenso”.

Antes de aprobarse estos dos cambios normativos, la sesión celebrada en Gernika ha comenzado con tres interpelaciones. En la primera, la diputada foral de Cultura, Josune Ariztondo, ha hecho un balance de los 16 meses de actividad de Bizkaikoa, la sociedad que gestiona los museos de Bizkaia. Ariztondo ha puesto una decena de “ejemplos”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sobre la actividad que esta entidad ha mantenido en este tiempo, pese a que los beneficios de su gestión “no aparecerán hasta que transcurra más tiempo”. Por su parte, el apoderado Arturo Aldecoa del Grupo Popular, responsable de la iniciativa, ha pedido que los grupos junteros tengan representación en el Consejo de Administración y en el Consejo Asesor de Bizkaikoa con el objetivo de “tener más información”.

A petición del mismo grupo, la diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha informado a la Cámara sobre la respuesta dada por su departamento a la petición de las Juntas Generales para que se adapten los autobuses de Bizkaibus para el transporte de bicicletas. Garamendi ha defendido que esta opción ya se da en alguna línea, citando la que comunica Bilbao con el aeropuerto, pero que la extensión de esta medida choca con la normativa actual que regula el transporte de viajeros y con la preferencia que se da a otros bultos como las sillas infantiles, entre otras cosas.

Por su parte, el Grupo Bildu ha solicitado, a través de otra interpelación, explicaciones a la Diputación en torno a “las líneas a seguir en el futuro en la gestión de los residuos”. Según este grupo, la Unión Europea recomienda impulsar modos más sostenibles de gestión de residuos, dejando de lado políticas de incineración y vertido, y optando por sistemas de recogida puerta a puerta, en clara referencia al que viene funcionando en algunos municipios de Gipuzkoa.

En su respuesta, el Diputado de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, ha manifestado que es “falso” que Europa “desestime” la incineración basada en la revalorización energética. Ha sostenido que en el plan de la Diputación aparece también la recogida “puerta a puerta”, pero no ha compartido que esta opción deba extenderse de manera generalizada.

Por otro lado, las Juntas Generales han rechazado una propuesta del Grupo Popular que pretendía modificar el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para que quedaran “exentas en un 50 por ciento las ganancias patrimoniales que se pongan de manifiesto con ocasión de la transmisión de inmuebles urbanos adquiridos a título oneroso”. Tanto Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos como Bildu, han rechazado la iniciativa.

Por otro lado, la iniciativa del Grupo Popular de cara a impulsar la “ventanilla empresarial”, ha recibido el apoyo mayoritario de las Juntas Generales. A excepción del Grupo Nacionalistas Vascos que ha votado en contra, todos los grupos de la cámara han apoyado la propuesta que pretende “facilitar” -según este grupo- la creación de empresas. A su vez, la moción presentada por este mismo grupo que pedía aprovechar la capacidad no utilizada de Zabalgarbi (un 10% según la revisión del PIGRU), ha sido rechazada por no recibir apoyos parlamentarios. El Grupo Nacionalistas Vascos ha votado en contra y tanto Bildu como el Grupo Socialistas Vascos han decidido abstenerse.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Y la tercera moción de la jornada, en la que el Grupo Bildu solicitaba que no se construyera la central de Biomasa de Errigoiti, ha sido también rechazada. El Grupo Nacionalistas Vascos y el Grupo Socialistas Vascos se han unido con sus 31 representantes, para votar en contra del contenido de la moción. Los 19 votos favorables de Bildu y del Grupo Popular Vizcaíno no han sido suficientes para sacar adelante esta moción.

Como ya ocurriera en plenos anteriores, la sesión ha concluido con las proposiciones no de norma. La propuesta del Grupo Bildu sobre los cambios en las condiciones para la percepción de la Renta de Garantía de Ingresos ha sido rechazada. Ningún otro grupo de la Cámara ha apoyado la propuesta de Bildu para que la Diputación regule una nueva prestación que cubra a un colectivo de personas que, por la aplicación del nuevo criterio del Gobierno Vasco que obliga a estar empadronado un mínimo de 3 años, han quedado excluidos de estas ayudas.

La iniciativa del Grupo Popular Vizcaíno sobre la propuesta de establecer un sistema de evaluación de las políticas públicas y de calidad de los servicios públicos ha sido aprobada. Este grupo ha aceptado las enmiendas de los Nacionalistas Vascos para que no se desarrolle una Norma Foral, un instrumento que los nacionalistas consideran “poco adecuado por su rigidez”. Ambos grupos, junto con los Socialistas Vascos, han votado a favor de la proposición, mientras que Bildu ha rechazado la iniciativa. Por último, la proposición no de norma de Bildu sobre esta misma cuestión, apoyada por el Grupo Socialistas Vascos, ha sido rechazada por la abstención de los populares y el voto en contra de Nacionalistas Vascos.